



TOLOSAKO  
UDALA

**OHIKO OSOKO BILKURA**  
**2018.05.29**

Tolosako Udaletxean, 2018ko maiatzaren 29an, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 29 de mayo de 2018, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegi Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga

Ibai Iriarte San Vicente  
Onintza Lasa Arteaga  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Igor Ezenarro Balda  
Kristina Pelaez Errazkin  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Cristian Fernandez Susin

Bertaratu ez diren zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia  
Lore Agirre Zipitria

Idazkaria:  
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:  
Ainhoa Molinos Zubiaurre

**Eguneko gaia zerrenda**

**Orden del día**

1. Ondorengo akta onartzea:  
2018ko apirilaren 24ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.

1. Aprobación de la siguiente acta:  
Sesión ordinaria del 24 de abril de 2018.



2. Batzar Unibertsal orokorraren funtzioetan Tolargi, SL. Sozietateko 2017ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuen onarpena.
3. Tolosa Lotzen, S.A. sozietate publikoaren desegitea eta likidazioa onartzea.
4. Kiroletako diru-laguntzak erregulatzeko ordenantzaren aldaketaren hasierako onarpena.
5. Enpresen lehiakortasunerako diru-laguntzen ordenantza espezifikoaren hasierako onarpena.
6. 2018/6 kreditu aldaketa gehigarriaren hasierako onarpena.
7. Diru-laguntzen eranskinaren aldaketaren onarpena.
8. Konpromiso kredituen eranskinaren aldaketaren onarpena.
9. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena.
10. Hiri autobusaren tarifen onarpena.
11. 2018ko aurrekontuaren lehenengo hiruhilabeteko exekuzioaren berri ematea.
12. 2017ko aurrekontuaren likidazioa. Egonkortasunari buruzko txostenaren komunikazioa Udalbatzarrari.
13. 2018/564 (2018/2 kreditu txertaketa), 2018/876 (2018/3 kreditu txertaketa), 2018/877 (2018/4 kreditu gehigarria) eta 2018/981 (2018/5 kreditu gehigarria) dekretuen jakinarazpena.
14. Alkatezako dekretu hauen berri ematea: 2018ko apirilaren 1etik 30ra (2018/651- 2018/868).
15. EHBILDU taldeak aurkezturiko mozioa, Ekainaren 10eko giza katearen ingurukoa.
16. Galderak eta eskaerak.
2. En funciones de Junta General Universal aprobación de las cuentas del ejercicio de 2017 de la sociedad Tolargi, SL.
3. Aprobación de la disolución y liquidación de la sociedad pública Tolosa Lotzen, S.A.
4. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza reguladora para la concesión de ayudas económicas al deporte.
5. Aprobación inicial de la ordenanza específica para la concesión de subvenciones para la competitividad de las empresas.
6. Aprobación inicial de la modificación de crédito adicional 6/2018
7. Aprobación de la modificación del anexo de subvenciones.
8. Aprobación de la modificación del anexo de los créditos de compromiso.
9. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.
10. Aprobación de las tarifas del servicio de transporte urbano.
11. Dar cuenta de la ejecución del presupuesto del primer trimestre del 2018.
12. Liquidación del presupuesto del 2017. Comunicación al Pleno del informe de estabilidad presupuestaria.
13. Dar cuenta de los siguientes créditos: 2018/564 (crédito incorporado 2018/2), 2018/876 (crédito incorporado 2018/3), 2018/877 (crédito adicional 2018/4 ) y 2018/981 (crédito adicional 2018/5 ).
14. Dar cuenta de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 30 de abril de 2018 (2018/651-2018/868).
15. Moción presentada por el grupo municipal EHBILDU sobre la iniciativa de Gure Esku Dago del 10 de junio.
16. Ruegos y preguntas.

Alkateak batzarra hasiera eman aurretik honako hau adierazi du:



TOLOSAKO  
UDALA

*"Batzarra hasi aurretik elkarretaratzea egin dugu Plaza Zaharrea eta hasi baino lehenago aipatu nahi nuen. Ez dela hilabete berriz ere beste elkarretaratzea izan genuela baita ere plaza honetan bortxaketa bat salatzeke aho batez, Egoera lazgarri hauek salatzea oso inportantea da. Eskertu nahi diot bai Ibarako alkateari, bai emakume taldeari eta baita Tolosako emakume taldeei hemen, denok elkarrekin, kontzentrazio hori egin izana. Beste alde batetik, Lore Agirrek ezin du etorri eta Begoña Tolosa gaixo dago eta indarrak berreskuratzen ari da. Seguru nago telebistatik osoko bilkura jarraitzen ariko dela. Beraz, luzatu nahi diot besarkada bat denon partetik."*

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

- |  |   |
|--|---|
| <b>1. Ondorengo akta onartzea:</b>                           | <b>1. Aprobación de la siguiente acta:</b>              |
| <b><u>2018ko apirilaren 24ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.</u></b> | <b><u>Sesión ordinaria del 24 de abril de 2018.</u></b> |

Izenburuan aipatutako akta aho batez **onartu** da, ondorengo zuzenketa egin ondoren.

8. puntuan, hau da Asunción klinikako langileen egoerari buruz tratatu ziren bi mozioetako bozketetan, PSE-EE alderdiko zinegotziaren bozketa errepikatuta dago aldeko eta aurkakoan.

Udalbatzako bozketa zuzena honakoa da:

EHBILDU taldeak aurkezturiko mozioa, Asuncion klinikako langileen egoerari buruzkoa.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala.

**Aurkako botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **Ez du onartu** EHBILDU taldeak aurkezturiko mozioa.

Tolosako EAJ PNV Udal taldeak aurkeztu duen **"OSASUNA TOLOSALDEAN"** mozioa:

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia



TOLOSAKO  
UDALA

Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia eta Cristian Fernandez Susin.

**Aurkako botoak:** Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu du EAJ-PNV** taldeak "Osasuna Tolosaldean" izenburuarekin aurkeztu duen mozioa.

2. Batzar Unibertsal orokorraren funtzioetan Tolargi, SL. Sozietateko 2017ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuen onarpena.      2. En funciones de Junta General Universal aprobación de las cuentas del ejercicio de 2017 de la sociedad Tolargi, SL.

Tolargi, S. L., sozietate Junta Orokor Unibertsalaren funtzioetan eratu ondoren, 2018ko martxoaren 27an Administrazio Kontseiluak hartu zuen erabakiaren berri eman zaie.

Jarraian, Udalbatzak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehen.-** Onartzea aipatutako sozietateen 2017. ekitaldiko urteko kontuak, hala nola egoera balantzeak, galdu-irabazien kontu eta txostenak.

**Bigarren.-** Onartzea sozietateen emaitzen aplikazioa, agirietan agertzen diren eran.

**Hirugarren.-** Sozietateko administrazio kontseiluaren lehendakaria ahalmentzea agiri horiek guztiak merkataritza erregistroan aurkezteko.

3. Tolosa Lotzen, S.A. sozietate publikoaren desagitea eta likidazioa onartzea.      3. Aprobación de la disolución y liquidación de la sociedad pública Tolosa Lotzen, S.A.

Parte-hartzeak:

Alkatea: *"Tolosa Lotzen sozietate publikoa sortu zen 2009 urteko irailean. Berez*



TOLOSAKO  
UDALA

*sortu zen urte hartan bertan onartu zen Tolosako hirian Antolamenduko Plan Orokorrak aurreikusten zituen hirigintza lanak kudeatzeko. Azken urteetan ez du inolako jarduerarik izan eta legez ezin direlako justifikatu defizitarioak diren sozietateak berau desegitea eta likidatzeko erabakia hartu zen, bai Administrazio Kontseiluan eta bai Batzar Unibertsalean ere. Inportantea da ere esatea balantzearekin eta inbentarioarekin ados gaudela denok eta lehen hartutako erabaki hori orain Udalbatzak bere egin behar duela."*

*Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu) : "Ados gaude eta poztekoa da Tolosa Lotzenen desagerketa eta disoluzioa ematea. Ez gara inoiz izan sozietate tipo honen eta modu honetakoan gustoko. Argi esan dugu beti sozietate hauek administrazio publikoak eskaini beharreko gardentasunaren kontra dihoaztela, opazidade bat eman izan diotela sozietate edo administrazio publikoak daukan publikotasun hori ilundu izan ohi dela. Iruditzen zaigu betidanik izaera pribatu horien erantzuten ziotela eta gu izaera publikoa dugula. Beti egongo gara erakunde mota honen kontra, Tolosa Lotzenen kontra bereziki Iruditzen zaigu gainera Espainian sozietate hauen izenean izaera publikoetako zenbait lagunek oso modu desegokian kudeaketa oso kazkarrak egin dituztela kontrol publikoan kanpo, nahiz eta publikoak izan %100ean eta horregatik pozten gara disoluzio hau, gaur hemen, aho batez guztion artean eman dela."*

*Alkatea: "Argitzearen, Tolosa Lotzen sozietate publikoa da %100a. Zuk aipatu duzuna, ez zait iruditzen alderaketa egin daitekeenik Espainiako beste hainbat lekuetako kasuak Tolosarekin. Nik uste bere garaian herramienta inportante bat izan zirela Udalantzako eta bere funtzioa bete zutela. Gaur egunean legez, funtzio hori egitea ezinezkoa da, legeak aldatzen direlako. Funtzio horiek betetzen ez dituztenez, gu ere ados gaude orain egokiena dela desegitea."*

-----

## **HIRIGINTZA ETA AZPIEGITURETAKO BATZORDEAK 2018KO APIRILAREN 17KO IRIZPENA.**

2018ko martxoaren 27an burututako Tolosa Lotzen, S.A.ren Administrazio Kontseiluak aho batez onartu zuela sozietatearen desegitea eta likidazioa burutzeko prozesua martxan jartzea.

Saio berean aurreratu zenez, Hirigintza Batzordean beharrezko informazioa eta azalpenak ematea adostu zen.

Desegitearen eta likidatzeari buruz azalpenak emateko, ATE aholkularitza enpresako kideak gerturatu dira saiora eta honakoak adierazi dituzte:

- Batzar Orokorreko saioko ekintza berean desegitea eta likidatzea onartzea posiblea dela.
- Administrazio Kontseiluko kideak eta Batzar Orokorreko kideak zinegotzi guztiak direnez, denak izan beharko dute likidatzaileak.



TOLOSAKO  
UDALA

- Erabakia hartzeari dagokionez, Batzar Unibertsalaren kasuan, kapital guztia Udalarena den heinean, nahikoa dela Udalbatza legez behar bezala eratuta egotea eta erabakia hartzea.

- Jarraian denak likidatzaile izendatuko direla. Espresuki onartu beharra dagoelarik likidatzaile izendapena eta Batzar Unibertsalaren saioan kideren bat faltako balitz, gerora espresuki onartu beharko lukeela notario aurrean, udal idazkariarekin batera Batzar Unibertsalaren erabakiaren ziurtagiria eskutan duela, desegite erabakia eskrituratzerara joatean.

Azalpen guztiak eman eta zalantza guztiak argitu eta gero, honakoa diktaminatu da bertaratutakoen aldetik eta aho batez:

**LEHENA.-** Onartzea Tolosa Lotzen, S.A., udal sozietatearen Batzar Orokorrak proposatutako sozietatearen desegitea.

**BIGARRENA.-** Sozietatearen likidaziotik eratorritako ondareak Udal Ondare Inbentarioan txertatzea.

**HIRUGARRENA.-** Udal sozietatearen desegite, likidatze eta iraungitze akordioetatik ondorioztatzen diren beharrezko kontabilitate eragiketak egitea.

**LAUGARRENA.-** Alkateari ahalmena ematea Jabetza Erregistroan Higiezin Ondareak inskribatzeko behar diren eskritura publikoak sina ditzan eta sozietatearen desegite, likidazio eta iraungitzetik eratorritako ezein dokumentu sinatzeko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosa Lotzen, S.A. sozietate publikoaren desegitea eta likidazioa.



4. Kiroletako diru-laguntzak erregulatzeko ordenantzaren aldaketaren hasierako onarpena.      4. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza reguladora para la concesión de ayudas económicas al deporte.

Parte-hartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin, Kirol zinegotzia: *“Legeen aldaketen ondorioz, kirol ordenantzetan, bai ordenantza espezifikoa eta bai 4 eranskinetan hauek dira. Kluben egiturak, Eskola Kirola, Jarduerak eta Igeriketa kanpainan, aldaketak eman behar izan ditugu. Gehienbat, diru-laguntzen ordainketan, nun, gehienez, aurreko urtean jasotako diru laguntzaren % 50 jasotzeko aukera izango da aurrerakin moduan. Aurten edukitako arazoak era batean soluzionatzeko eta berriz ez gertatzeko. Diru-laguntzen irizpidetan, baldintzatan eta bere kontrolean aldaketak ere eman dira. Esan nahi nuke gure jarrera arazo gero eta gutxien egotea eta dena modu hobereanean aurrera joatea da.”*

-----

## KIROL BATZORDEAREN 2018KO MAIATZAREN 18KO IRIZPENA

I. Tolosako Udalak, 2017ko apirilaren 25eko udal batzarraren erabakiz, diru-laguntzen Ordenantza Orokorrekin batera, Kirol Zerbitzuko ordenantzak onartu zituen. Kirolaren kasuan lau dira ordenantza eta oinarriak arautzen dituzten diru-laguntza lerroak, hain zuzen ere:

1. Kluben egiturak indartzeko eta garatzeko (1. eranskina).
2. Eskola Kirolaren kudeaketarako egitura espezifikoak sortu eta garatzeko (2. eranskina).
3. Kirol jarduera bereziak antolatzeko (3. eranskina).
4. Igeriketa kanpaina gauzatzeko (4. eranskina).

II. 2018an, Kiroletako diru-laguntzen onuradun izateko betebeharrekoak ahalik eta modu errazenean eta sinplifikatuenean bete ditzaten eragileek, Kirol Departamentuak aldaketak proposatu ditu Kiroletako ordenantza espezifikoa eta lerro bakoitzari loturiko oinarrietan, besteak beste, irizpide batzuk matizatu, indikadoreak berrikusiz... Formulario berriak ere prestatu dira (*Eskaera orria, Kontu zurigarria eta Memoria*) kirol elkarteek aurkeztu behar duten informazioa eta dokumentazioa normalizatua eta parekoa izan dadin eta balorazioa justu eta objektiboena lortzeko asmoz.

III. Aurrekari hauek ikusita, eta Tolosako kirol elkarte eta eragileen jarduera babestu eta bultzatzeko interesa eta konpromisoa dela eta, Kiroletako diru-laguntzen ordenantza eta oinarriak berrikusi dira.

IV. Txosten juridikoa osatu eta gero, aldaketa bat egin dela adierazten da, hain zuzen ere, 1. eranskinean (kluben egiturak), 5.artikuluari, azpipuntu berri bat txertatu da, **hitzarmenak eskola kirolarekin azpigitulua duena.**

Kontuhartzailearen ekarpenak kontuan hartu eta aplikatu dira.



TOLOSAKO  
UDALA

Hortaz, ondoren zerrendatutakoak izango dira behin betiko aldaketak:

### **Kiroletako ORDENANTZA espezifikoa:**

Aldatutako artikuluetan:

Bigarren artikuluan: “Tolosako Udalaren kirol politikako irizpide nagusietan”, 10. puntua.

7.artikulua, Balorazio irizpideak.

10.artikulua, Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak, puntu berria da.

12.artikulua, Diru-laguntzen ordainketa.

### **1.ERANSKINA (KLUBEN EGITURAK)**

Testu aldaketak proposatzen dira honako artikuluetan:

4. artikulua, Dokumentazioa (matizatzen da noiz ez den beharrezkoa)

5. artikulua, Diru-laguntzak zehazteko **irizpideak**: I. Lizentziak

II. Lehiaketa maila

III. Titulazioak

IV. Intereseko txapelketa, memorialak...

Kirol jardueren urteurrenak

Antolaketaarako baliabideak

Aurrekontua (kendu egingo da)

Balore erantsia

V. Autofinantzaketa

VI. Egituren baloraziorako beste kontzeptu

batzuk

Hitzarmenak eskola kirolarekin (puntu berria)

Sari eta Trofeoak: puntu berria

6.artikulua, Diru-laguntza ordaintzea

7.artikulua, Diru-laguntzaren aurrerakina, puntu berria da

8.artikulua, Justifikatzeko kontua

9.artikulua, Balorazio batzordea

10.artikulua, Diru-laguntzen kontrola

### **2. ERANSKINA (ESKOLA KIROLA)**

Testu aldaketak proposatzen dira honako artikuluetan:

1.artikulua, Helburua

2.artikulua, Erakunde onuradunak

3.artikulua, Eskaeraren aurkezpena, puntu berria da

4.artikulua, Onuradunen betebeharrak

5.artikulua, Diru-laguntza zehazteko irizpideak

7.artikulua, Diru-laguntzaren ordainketa

9.artikulua, Balorazio batzordea

10.artikulua, Diru-laguntzen kontrola

### **3.ERANSKINA (JARDUERA BEREZIAK)**

Testu aldaketak proposatzen dira honako puntuetan:





TOLOSAKO  
UDALA

- 1.artikulua, Helburua
- 2.artikulua, Pertsona eta entitate onuradunak
- 3.artikulua, Eskaeraren aurkezpena
- 4.artikulua, Dokumentazioa
- 5.artikulua, Eskaeraren balorazioa (d. puntua berria da)
- 6.artikulua, Ebaluazio eta diru banaketarako irizpideak:
  - Kluben urteurrenak
  - Antolaketarako baliabideak
  - Aurrekontua eta defizitaren arteko proportzioa
  - Balore erantsia (jardueraren kudeaketa zailtasuna txertatu da)
  - Hitzarmenak eskola kirolarekin
  - Sari eta trofeoak
- 7.artikulua, Diru-laguntzaren ordainketa eta justifikatzeko kontua.
- 8.artikulua, Balorazio batzordea
- 9.artikulua, Diru-laguntzen kontrola

#### **4.ERANSKINA (IGERIKETA KANPAINA)**

Honako artikuluetan proposatzen dira aldaketak:

- 3.artikulua, azken aurreko parrafoa kendu egin da
- 5.artikulua, Diru-laguntza zehazteko irizpideak
- 6.artikulua, Diru-laguntzen ordainketa
- 7.artikulua, Balorazio batzordea

**IV.** Espediente honen aurreko tramite guztiak bete direla ikusita, eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bere 22.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, proposatzen da Kiroletako Ordenantza eta Oinarrien testu berritua hurrengo Osoko Bilkurara eramatea.

Horrenbestez, batzordeko kide guztien aldeko botoekin, aho batez hauxe da eman duen

### **DIKTAMENA**

**Lehenik:** Onartzea 2018ko Kiroletako Ordenantza eta Oinarrietan xedatuak azaltzen diren proposamen aldaketak.

**Bigarrena:** Maiatzeko Osoko Bilkurara helaraztea Ordenantza eta oharri berriak.

**Hirugarrena:** Ordenantza hauen aldaketak eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.



TOLOSAKO  
UDALA

**Laugarrena:** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**Bosgarrena-** Xedatzea behin betiko onartutzat joko direla, baldin eta epe horretan ez badago alegaziorik.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **erabaki du** hasierako onarpena ematea kirol jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituzten ordenantza desberdinen aldaketei.

5. Enpresen lehiakortasunerako diru-laguntzen ordenantza espezifikoaren hasierako onarpena.      5. Aprobación inicial de la ordenanza específica para la concesión de subvenciones para la competitividad de las empresas

Parte-hartzeak:

... Alkatea: *“Tolosako Garapen ekonomikoan industria sektoreak duen garrantzia uka ezina da. Gehienbat enplegu sortzailea delako eta, gainera, kalitatezko enplegua delako iraunkortasunari eta egonkortasunari dagokionez.*

... Azken Garapen Ekonomikoaren batzordean aurkeztutako azken Enplegu Planeko emaitzetan sektore honetan egindako, sortutako enpleguak, behin enplegu plana bukatu ondoren, oraindik mantentzen dira %80an. Herriko enpresen izaera ere zein den oso jakina da, ETak dira, enpresa txikiak eta ertainak dira, metal mekanikaren arloari lotuta daude. Industriaren eskumena erabat Jaurlaritzakoa izanik ere, bai eskualde mailan, Tolosaldea Garatzenen bitartez, aurkeztu duena aurten bigarren Lehiakortasun plana, eta bai hainbat udalek osagarri modura, hainbat ekimen saiatzen gara egiten, lagungarri izan daitezkeenak. Coworking zerbitzua adibidez, momentu honetan dagoeneko eskaera jasotzen ari gara. Enpresetik gertutasun hori lantzen ari gara legealdi honetan baita ere, Hor dago antolatu genuen enpresa eguna esate baterako. Lanbide heziketarekin izaten ari gara harreman jarraitua. Harreman horren ondorioz, sortu zen Enpresa lehiakortasunerako diru-laguntzak egiteko proposamena. Eta, gaur onartzen duguna da diru-laguntza hori eman ahal izateko ordenantza. Helburua da jarduera berritzailea sustatzea enpresetan, gure herriko enpresetan. Hori alde batetik eta beste alde batetik, balioan jartzea Lanbide Heziketa bera. Lanbide heziketatik sortzen den prestakuntza eta jakintza gure herriko



TOLOSAKO  
UDALA

*enpresen eskura jartzea. Proiektu hau ez da berria, hau egin izan du lehenago ere, baina Udalak momentu honetan bultzada bat eman nahi dio. Gehienez ere, 50 langile dituzten enpresei zuzenduta dago. Baloratzeko irizpideak ordenantza bertan agertzen dira eta finantziatorako gehieneko kopurua izango da 3.000€ edo, kasuan, proiektuaren kostuaren % 75a.”*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Kontsideratzen dugu pauso positiboa dela eta bereziki pozik gaude deialdia honek izan duen garapena Garapen ekonomikoaren batzordean. Honetan posible izan dugu ekarpen egitea, elkarlan batean aritu gara apur bat deialdia hau kudeatzen. Bereziki azpimarratu nahiko nuke gure ekarpen handiena jasoa izan dela, hasieran zuen izaera oso industrialetik izaera zabalago bat ematera, zerbitzu berritzaileak ere sartu ditugunean lagundu daitezkeen ekimenen artean. Gure iritziz horrela askoz ere egokiago batzen ditu ekonomi berriak eta beste ekonomi batzuk, ekonomi kreatiboak, sortzaileen ekonomiak, teknologia berria elkartzen dituzten zerbitzu berritzaile arloan pixka bat hasierako dokumentuan bazter batean gelditzen zen eta gehiago prototipo eta industria ikuspegitik sartzen delako. Azpimarratu berriz ere, elkarlana deialdi honetan eta hori positiboa da horrelakoetan nolabait Tolosako eta Tolosaldeako ekonomia bizkortu eta sendotu nahi badugu eta aldi berean enplegua sustatu.”*

-----

## **EKONOMIA SUSTATZEKO BATZORDEKO 2018KO MAIATZAREN 21EKO IRIZPENA**

Tolosako Udalak, Tolosako Udalerrian eta Apatia-Errekan kokatuta dauden eta gehienez 50 langile dituzten enpresen garapen esperimentalei, prototipoen egintzari eta soluzio edo zerbitzu berritzaileei bultzada ematen dieten proiektuak, eta halaber, prototipo-soluzio eta/edo zerbitzu horien balioztapena egiteko diru-laguntzak ematea arautzen duen ordenantza espezifiko onartzea.

### **Aurrekariak**

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17.1.25 de artikuluan jartzen duenaren arabera, udalerriek erabili ahal izango dituzte eskumen propioak, tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.

Sektore industrialak neurri handi batean ematen dio laguntza Tolosako ekonomia lokalari, bai enplegua sortzen bai Balio Erantsi Gordina (BEGd) sortzen. Gehienbat, bertako industria egitura ekoizpen-establezimenduek - gehienez 50 langile dituzten ETEek- osatzen dute. Establezimendu horiek metal-mekanika arloari lotuta daude, dela ekipamendu-ondasunen fabrikatzaile gisa, dela udalerrian bertan edo auzo-herritan kokatutako enpresa neurri handiagokoen azpikontratista gisa.

Aipatutako arlo horietan beren industria-jardueren lehiakortasunari balio erantsi handiko produktu/zerbitzuekin eutsi ahal izateko, beharrezkoa da jarduera berritzailea



TOLOSAKO  
UDALA

etengabe sustatzea enpresetan. Nitxoetan kokatzeko, non lehia-diferentziala ez baitago bere kostu-egituretan oinarrituta, beharrezkoa da enpresek egitea garapen esperimentalei, prototipoen egintzari eta soluzio edo zerbitzu berritzaileei bultzada ematen dieten proiektuak, eta halaber, prototipo-soluzio eta/edo zerbitzu horien balioztapen berriak sortzen dituzten I+G+b jarduerak, bai eta prozesu berritzaileak ere.

Bestalde, eskualdeko prestakuntza-zentroetako ikerketako eta irakaskuntzako taldeek prozedura eta produktuak hobetzera zuzendutako zerbitzu osagarriak eskaintzen dizkiote industriari. Zerbitzu osagarri horiek alor horretan aditu direnek zuzentzen dituzte, goiko ikasturtetako ikasleek ere parte hartzen dutelarik beren garapenean.

Alde horretatik, ikasleen prestakuntza sustatzen da, ikasle horiek osatuko baitituzte, hain zuzen ere, Tolosaldeko enpresen langile-taldeak.

### **Oraingo egoera**

Esparru honetan dago ordenantza hau, Tolosako industria-enpresek alor horretan duten jarduera sustatu nahi duena.

Tolosako Udalak 10.000 euroko partida bat onartu zuen 2018. urteko aurrekontuan.

Laguntza ekonomiko hauek arautzeko ordenantza prestatu da, zeina Udaltzako onartu behar duen, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2 artikulua araberak.

Halaber, proposatzen da horren guztiaren berri ematea Garapen Ekonomikoko Batzordeari, eta berak eman beharko du dagokion irizpena.

Onartzea diru-laguntzak ematea arautzen duen ordenantza espezifiko hau: Tolosako Udalak, Tolosako Udalerrian eta Apatxa-Errekan kokatuta dauden eta gehienez 50 langile dituzten enpresen garapen esperimentalei, prototipoen egintzari eta soluzio edo zerbitzu berritzaileei bultzada ematen dieten proiektuak, eta halaber, prototipo-soluzio eta/edo zerbitzu horien balioztapena egiteko diru-laguntzak. Diru-laguntza horiek norgehiagokako erregimenaren bidez emango dira.

Hori guztia ikusirik, Ekonomia Sustatzeko Batzordeak, Olatz Peon, Jokin Azkue eta Iñaki Irazabalbeitiaren aldeko botoekin, hauxe da eman duen

### **DIKTAMENA**

Lehenik.- Hasierako onarpena ematea Enpresen Lehiakortasunerako diru-laguntza arautzen duen ordenantza espezifiko erregulatuazaleari.



Bigarrenik.- Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **erabaki du** hasierako onarpena ematea Enpresen Lehiakortasunerako diru-laguntza arautzen duen ordenantza espezifiko erregulatuazileari.

**6. 2018/6 kreditu aldaketa gehigarriaren hasierako onarpena.**      **6. Aprobación inicial de la modificación de crédito adicional 6/2018.**

Parte-hartzeak:

Alkateak adierazi du 6., 7., 8. eta 13. puntuetan, kredituei dagokienez, batera argituko dituela Jokin Azkue Arrastoa zinegotziak:

... Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV) *“Eztabaidarako zenbait puntu tratatuko da herritarrentzat errazagoa delako jarraitzeko, bakarrik da prozedura administratiboa eskatzen duen modu batera edo bestera daude gai-zerrendak, baina ulergarria izateko era zabal batean aurkeztuko ditugu. Batetik aipatu beharko genituzke zazpi esparru lantzen ditugula kreditu aldaketa honetan eta bana-bana joango naiz zehazten, garrantzizkoenak. Badira txiki batzuk aipatuko ez dituztenak xehetasun oso txikitik sartuko ginateke eta nahasketarako izan daitezkeenak. Hauek dira:*

**1.- Generoaren berdintasuna eta kirola sustatzeko proiektuak**

*Generoen berdintasunerako programak garatzeko da, urtero burutzen direnak dira (Aniztasuna jarduerak hain zuzen ere, eta kreditu aldaketan jasotzen dira lehengo urtean bezala. Guztira 5.000 euro.*

*Kirolaren sustapenerako eta Tolosaldea eskualdeari proiektzioa eman nahian emakumeek gidatuko duten trainerua abian jarriko da. Horretarako Tolosaldeako udalek biztanleko 0,50 zentimo jarriko dute. Tolosak guztira 10.000 euro jarriko ditu.*



## **2.- Garapen ekonomikorako proiektuak**

Babarrun kofradiari 5.700 euro emango zaizkio bere urteko jarduera burutzeko. Beste programa lehendik datorrena. "BERRIZ" proiektuarekin aurrera goaz hartutako konpromisoei aurre eginez. Konpromiso horiei aurre egiteko 11.350 euro jarri behar dira. Jada 7 dendak parte hartzen dute honetan eta espero dugu urte bukaerarako beste bi gehiago programan sartzea.

ORIABURUn "EMARI" deituriko coworking proiektua abian jartzeko azken ukituak egin behar dira eraikuntzan, zenbait binilo eta altzariak jarri.. Bestalde, ekintzaileak sustatzeko deialdia abian da eta horretarako diseinatuta dagoen komunikazio plana burutzeko bitartekoak jarri dira. Guztira 29.000 euro jarri dira honetarako.

## **3.- Kulturaren sustapenerako proiektuak**

Erraldoi eta Buruhandien konpartsari 10.000 euroko diru laguntza izenduna emango zaio Japonera bidaia egin dezan. Han aukera izango dute Tolosako kultura eta beraien jarduera hedatzeko.

## **4.- Alde Zaharra berpiztea, inbertsioak**

RC2ko eremua garatzeko azken eskuraketa burutzen du udalak, falta den handiena da hau, hain zuzen ere OIARBIDE ostalaritzako eraikuntzan dagoen erantsitako hegoaldeko eraikina, hiru solairutako eraikina. Eraikuntza hori eskuratzeko gehieneko kreditua jartzen da, 420.000 euro. Erosketa hau burutuz gero, falta zaigu Oiarbide parean erribera ondoko horma eraikitzea. Egun proiektu prestatzen gabiltza, hori burutu ondoren prest egongo ginateke proiektu hori abian jartzeko eta aurreikusitako etxebizitzak burutzeko.

## **5.- Mugikortasuna eta ingurumenaren esparruan hobekuntzak**

- Argiztapen publikoan hobekuntzak egingo dira, horretarako diru laguntzak jasotzen ditu udalak eta diru laguntzak kudeatzerakoan burutzen dugu, ohiko legez, diru kreditua. Kasu honetan, Alde Zahar osoan LED sistema jarriko da eta baita ere Berazubin, horretarako 85.000 euro inguru inbertituko dira.
- Elosegi parkean hobekuntzak burutuko dira, orain abian jarriko dira hobekuntzak parkearen gailurrean dagoen miradorean eta ondoren eremuan dagoen itxitura birgaituko da, zenbait lekuetan apurtuta baitago, azken honetarako 46.000 euro jarriko ditugu.
- Tolosako pasealekuan mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko zuhaitz ondoetan dauden zuloak estaltzeko plana abian jarriko da eta horretarako 48.000 euro jarriko ditugu.
- Hiri auzoen dinamizatorako proiektuak burutuko dira, kasu honetan, Amartzeko bizilagunentzat "Auzo etxe" deituriko eraikina birgaituko da eta osasun dispentsarioa ere bai. Proiektu horiek garatzeko auzotarren partaidetza ezinbestekoa izan da. Guzti honetarako 384.815 euro jarriko ditu udalak.
- Landa auzoetan zenbait proiektu garatuko dira, kreditu honekin Bedaio auzoan herri guneko errepidea konponduko da, aparkalekuak burutuko dira eta argiteria berrituko da, guztira, 153.000 euro inbertituko dira. Beste landa auzoetan ere zenbait ekimen burutuko dira, horiek ere auzotarrekin adostuz. Aldaban aparkaleku bat eraikiko da. Urkizun parkea birgaitu eta elkarte-guneko leihoak konponduko dira, eta azkenik, Urkizun errepidea asfaltatuko da.

## **6.- Etxe bizitzen alokairua indartzeko azterketa**

Alokairua sustatzeko datorren deialdia egin aurretik etxebizitza hutsen diagnostikoa



egin nahi dugu, sakonean ezagutu nahi dugu nola animatu etxe-jabeek etxebizitza hutsa alokairuan jarri dezaten. Diagnostiko hori egin bezain laster diru-laguntza deialdia abian jarriko genuke, azterketa hori abiaburu hartuta. Azterketa hau egitearen eskabidea EHBildutik etorritakoa da eta guk begi onez ikusia. Guztira 60.000 euro jarriko dira.

### **7.- Larrialdietarako diru laguntzak**

Urtea amaitzeko aurreikuspen hau egiten dugu, orain arteko bilakaera aztertuz. Kreditu hau beharko dugu "diru sarrerak bermatzeko eta gizarte inklusioa" bermatzeko. Guztira 28.500 euro."

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): "Ogasun batzordean azaldu genuen kreditu aldatetaren gehigarrien inguran kezka batzuk genituela. Ez zertarako erabiliko den diru hori, horretan ados gaude, baina bai bi laguntza konkretuen gestio moduen inguruan. Hain zuzen ere, TAKi emango zaion diru-laguntza eta Buruhandien konpartsari emango zaiona. Iruditzen zaigulako eta gu alde gaude jakina, emakumeen kirola lagundu eta sustatu egin behar duela. Argi dugu Tolosako kultura mundura atera egin behar dela. Eta bi ekintzaileek hori lortzen dute. Baina dena den, iruditzen zaigu azken finean laguntza horiek eman diela Gobernuak borondatea izan duelako baina Gobernuak borondaterik izan ez balu ez zirela emango, ez dagoela araututa horrelako laguntzak emateko prozedurarik Tolosako udaletxean. Iruditzen zaigu beste udaletxe batzuetan bezala, hemen ere martxan jarri beharko genukeela horrelako prozeduraren bat ohizkanpoko jarduera hauek diru-laguntzaz laguntzeko prozedura ahalik eta objektiboan abian egon dadin eta ez laguntza ematea uneko gobernuaren borondatearen menpe egoteko. Horregatik abstenitu egin ginen Ogasun batzordean kezka hori genuelako eta kezka hori azaleratu nahi genuelako, baina , Osoko bilkuran aldeko botoa emango dugu."

... Alkatea: "Egia da Ogasun batzordean kezka hori azaldu zela eta egia da saiakera egin dezakegula ohiz kanpoko jardueratarako nolabaiteko ordenantza bat egitea. Nik zalantzak baditut, izan ere, gehiegizko ordenantzak eta gehiegizko mugak jartzen ematen badizkiogu gura buruari gero zailtasuna handiak izaten dira. Horregatik ez dakit ez den egokiago ezohiko horiek batzordean azaltzen bakoitzak bere balorazioak ematea eta beste era batera onartzea. Zalantzak dira modu guztietara hitz egingo dugu eta irekiak gaude."

-----

## **OGASUN BATZORDEAK 2018KO MAIATZAREN 23AN EMANDAKO IRIZPENA.**

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean, kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den 2018/6 espedientea aztertu da.



Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ere azertu da.

### KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	300,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	136.450,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	34.115,00
6	INBERTSIO ERREALAK	906.198,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>1.077.063,00</b>

### FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	1.077.063,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.077.063,00</b>

Hori guztia ikusirik, bozkatu egin da:

- Olatz Peon (EAJ): aldeko botoa
- Nuria Carbonell (EAJ), Iñigo Alonsoren izenean: aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): aldeko botoa
- Kristina Pelaez (EH Bildu), Lore Agirreren izenean: abstentzioa
- Iñaki Irazabalbeitia (EH Bildu): abstentzioa

Beraz, ondorengo diktaminatu da eta proposatzen du:

**Lehena.-** Osoko Bilkurak 6/2018 kreditu aldaketa onartzea.

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea 6/2018 kreditu aldaketaren espedientea hamabost lanegunez. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten.





TOLOSAKO  
UDALA

Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Partida	Onuraduna		Helburua	Hasierako Aurrekontua 2018	Tipoa
	CIF	IZENA			
0800.481.01.334.10	G20448957	COMPARSA DE GIGANTES Y CABE	Bertako kulturaren sustapena nazioarte	10.000,00	izenduna
0900.481.01.335.10	P20000017J	UEMA	Urteko ekarpena	18.707,00	izenduna
1000.481.01.341.00	G20871521	TAK	Emakumeen trainera sustatzeko	10.000,00	izenduna
1100.481.01.431.00		EKINTZAILEAK	Berriz programa	11.350,00	Konpetentzi lehiakorra
1100.481.01.431.10	G20885547	BABARRUN KOFRADIA	Ohiko jarduera	5.700,00	izenduna

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **erabaki du** hasierako onarpena ematea 2018/6 kreditua aldaketa gehigarrien espedienteari.

**7. Diru-laguntzen eranskinaren aldaketaren onarpena.**      **7. Aprobación de la modificación del anexo de subvenciones.**

**OGASUN BATZORDEAK 2018KO MAIATZAREN 23AN EMANDAKO IRIZPENA**

Kontuhartzaileak 2018ko diru-laguntzen eranskina aldatzeko proposamena aurkeztu die die batzordekideei:

Honela geratzen dira aldatzen diren puntuak:

Hori guztia ikusirik, bozkatu egin da:

- Olatz Peon (EAJ): aldeko botoa
- Nuria Carbonell (EAJ), Iñigo Alonsoren izenean: aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): aldeko botoa
- Kristina Pelaez (EH Bildu), Lore Agirrerren izenean: abstentzioa



- Iñaki Irazabalbeitia (EH Bildu): abstentzioa

Beraz, ondorengo diktaminatu da eta proposatzen du:

**Lehena.-** Osoko Bilkurak 2018ko diru-laguntzen eranskina aldatzea goian aipatutako aldaketekin.

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea 2018ko diru-laguntzen eranskinaren aldaketa hamabost lanegunez. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** diru-laguntzen eranskinaren aldaketa.

8. Konpromiso kredituen eranskinaren aldaketaren onarpena. 8. Aprobación de la modificación del anexo de los créditos de compromiso.

### OGASUN BATZORDEAK 2018KO MAIATZAREN 23AN EMANDAKO IRIZPENA.

Kontuhartzaileak azaldu du Bedaioko urbanizazio obrak 2 fasetan burutuko direla. Hori horrela izanik, kreditu konpromisoen eranskina aldatzea proposatu da:

Honela geratzen dira aldatzen diren puntuak:

PARTIDA	KONTZEPTUA	DENERA	2018	2019
0700.601.07.417.00	BEDAIO URB.OBRAK	153.000	75.000	78.000



TOLOSAKO  
UDALA

Hori guztia ikusirik, bozkatu egin da:

- Olatz Peon (EAJ): aldeko botoa
- Nuria Carbonell (EAJ), Iñigo Alonsoren izenean: aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): aldeko botoa
- Kristina Pelaez (EH Bildu), Lore Agirrerren izenean: aldeko botoa
- Iñaki Irazabalbeitia (EH Bildu): aldeko botoa

Beraz, ondorengo diktaminatu da eta proposatzen du:

**Lehena.-** Osoko Bilkurak 2018ko konpromiso kredituen eranskina aldatzea, goian aipatutako aldaketekin.

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea 2018ko konpromiso kredituen eranskinaren aldaketa hamabost lanegunez. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** konpromiso kredituen eranskinaren aldaketa.

## 9 Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena. 9. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.

### OGASUN BATZORDEAK 2018KO MAIATZAREN 23AN EMANDAKO IRIZPENA

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, bere 61. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren faktura hauek 2018ko ekitaldian jaso dira, baina 2017ko ekitaldiko data dute.



TOLOSAKO  
UDALA

HARRERA DATA	FTRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FTRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2018-03-16	2017-11-13	0800.226.06.334.10	IMANOL GARAIZABAL PILDAIN	43	NAGARE IKUSKIZUNA TOLOSAKO LEIDOR ANTZOKIAN. AZAROAK 10	2.582,00 €
2018-03-09	2017-12-29	0800.226.06.337.20	ASTONDOA PIROTEKNIA	171586	OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN FESTARAKO ANTORTXAK	706,98 €
2018-03-20	2017-11-28	0800.226.06.334.10	MOLATU PRODUKZIOAK, S.L.	550	TOLOSAKO MUSIKA BANDAK ANTOLATUTAKO SANTZA ZEZILI KONTZERTUA	471,91 €
2018-04-25	2017-07-28	0800.226.06.338.00	SGAE	3454136	SERVICIOS DE RECAUDACIÓN DE DERECHOS DE AUTOR	2.219,27 €
2018-04-23	2017-10-27	1000.226.07.341.00	SHANTI KIROLAK	5641	KROSS SAN ESTEBAN 2017	600,00 €

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, bere 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

2017ko abenduaren 31n aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2018ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Osoko Bilkurari dagokio.

Hori guztia ikusirik, Batzordeak aho batez diktaminatu du itxitako ekitaldiko faktura hau Osoko Bilkurara bidaltzea, onar dezan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Egulaz Ezkiaga, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** itxitako ekitaldiko faktura-zerrenda.

## 10. Hiri autobusaren tarifen onarpena.

## 10. Aprobación de las tarifas del servicio de transporte urbano.

Parte-hartzeak:

... Alkatea: "Herri garraio zerbitzua lehiaketara atera zuen Udalak, gaia kokatzeko martxoaren 1ean Gobernu Batzarrean onartu zuen kontratazio prozedura eta Gipuzkoa Aldizkari Ofizialean argitaratu. Lizitatzaila bakarra izan genuen Cuadrabidean, S.L.: Apirilaren 26an, adjudikazio proposamena egin zuen kontratazio mahaiak eta dokumentuen errekerimenduak eskaintzen dituen 10 egun itxoin ondoren, maiatzaren 10ean Gobernu Batzarrak adjudikazio proposamena egiten du. Kontratuaren iraupena izango da urte betekoa, jada jakinarazi eta



*argitaratu denez eta 6 hilabetez luzatzeko izango da. Adjudikazioa jakinarazten den egunetik 15 lan eguneko epea utzi behar da kontratu formalizatu ahal izateko. Eta epemuga horretan beste lan batzuk aurreratu behar dira, tartean, baita ere, tarifak onartzearena eta hori da gaur egingo duguna, tarifak onartu. Tarifak lehen zituen onura berdina mantentzen ditu. Aldaketa bakarra da bonuen sistema batetik txartel sistema batera pasatzen direla. Prezio mantendu egiten da, bidaia bat 0,70 zentimo eta txartelarekin 0,32 €. Diktamenean azaltzen den modura txartelak 3 €ko kostua izango du baina fidantza moduan emango da. Horrek esan nahi du gehiago erabili ez baldin bada txartela eta baldintza egokian badago noski bueltatu daitekeela eta dirua itzultzen dela. Txartelak kargatu ahal izango dira autobusen bertan 5 € multiploarekin. Baita ere, aipatu 4 urtetik beherako haurrak kargatu behar ez duten txartela izango dute urbanoa erabili ahal izateko.”*

-----

## OGASUN BATZORDEAK 2018KO MAIATZAREN 23AN EMANDAKO IRIZPENA

Esleipendun berri baten eskutik hiri-autobusaren zerbitzuaren hasiera aurreikusten denez, ondorengo tarifa eta aplikazio-arauak onartzea proposatzen da:

	TARIFA (BEZa barne)
Bidaia, erabiltzaileen txartelik gabe	0,70 €
Bidaia, erabiltzaileen txartelarekin	0,32 €
4 urtetik beherako haurrek	0,00 €
Erabiltzaileen txartela	3 € (fidantza moduan)

Aplikazio arauak:

1.-Txartel elektronikoarekin ordaindutako kopurua fidantza bezala kontsideratuko da. Erabiltzaileak txartela itzultzen duenean, kopuru hori itzuli egingo zaio, beti ere egoera onean badago, hautsi gabe.

Erabiltzailearen ardura da txartela zaintzea, ondo funtziona dezan.

2.-Txartel elektronikoa 5 euroko multiploetan kargatu ahal izango da.

3.- 4 urtetik beherako haurrek kargatu behar ez den txartela lor dezakete. Tramitea egiteko familia-liburuaren kopia edo NANA, eta haurraren argazkia entregatu behar dira. Txartela lortzeko, 3 euroko fidantza jarri behar da. Txartela haurrak 4 urte



TOLOSAKO  
UDALA

betetzen dituenean iraungi egingo da. Beraz, ordutik aurrera kargatu behar den txartel arrunta izatera pasako da edo txartela itzuli ahal izango du.

Hori guztia ikusirik, bozkatu egin da:

- Olatz Peon (EAJ): aldeko botoa
- Nuria Carbonell (EAJ), Iñigo Alonsoren izenean: aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): aldeko botoa
- Kristina Pelaez (EH Bildu), Lore Agirreren izenean: aldeko botoa
- Iñaki Irazabalbeitia (EH Bildu): aldeko botoa

Beraz, ondorengo diktaminatu da eta proposatzen du:

**Lehena.-** Osoko Bilkurak onartzea goian aipatutako hiri-autobusaren tarifa eta aplikazio-arauak.

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea tarifa eta aplikazio-arau hauek hamabost lanegunez. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko dira, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, behin betiko onartutzat joko dira.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** hiri-autobusaren tarifa eta aplikazio arauak.

**11.2018ko aurrekontuaren lehenengo hiru hileko exekuzioaren berri ematea.**

**11.Dar cuenta de la ejecución del presupuesto del primer trimestre del 2018.**

## **OGASUN BATZORDEAK 2018KO MAIATZAREN 23AN EMANDAKO IRIZPENA.**

21/2003 Foru Arauaren 64. artikulua ezarritakoari jarraituz, kontuhartzaileak 2018ko aurrekontuaren lehen hiru hilekoaren exekuzioari buruzko ondorengo dokumentuak aurkeztu ditu:



- Sarrerak, kapituluka eta partidaka
- Gastuak kapituluka, kontzeptuka eta organoka

Aurreko hilabeteetan informazioa aurkezteko erabili ziren egitura berdineko dokumentuak erabili dira, Udalbatzak beste informaziorik eskatzen ez duen bitartean.

Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.

**12.2017ko aurrekontuaren likidazioa. Egonkortasunari buruzko txostenaren komunikazioa Udalbatzarrari.**      **12. Liquidación del presupuesto del 2017. Comunicación al Pleno del informe de estabilidad presupuestaria.**

**OGASUN BATZORDEAK 2018KO MAIATZAREN 23AN MAIATZAREN 23AN EMANDAKO IRIZPENA.**

Kontuhartzaileak 2017ko aurrekontuaren likidazioaren berri eman du:

Hona hemen horren laburpena:

**DIRUZAINZA GERAKINA**

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2017-12-31n:		11.759.734,23
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		4.501.150,14
Aurrekontuko zordunak :	4.408.150,50	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	92.999,64	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		3.797.736,39
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	2.461.985,36	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	1.335.751,03	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		12.463.147,98
5.- Saldo kobragaitzak:		2.444.896,84
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		345.544,10
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		9.672.707,04



### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	1.074.988,59
2.- Aurreko ekitaldian likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-44.063,55
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	2.423.087,78
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-272.845,41
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	3.181.167,41

### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	3.361.487,40
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	2.680.406,42
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	6.041.893,82

Batzordekideak jakinaren gainean geratu dira eta proposatzen da:

**Lehena:** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Bigarrena:** Osoko Bilkurari berri ematea.

Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

- 13. 2018/564 (2018/2 kreditu txertaketa), 2018/876 (2018/3 kreditu txertaketa), 2018/877 (2018/4 kreditu gehigarria) eta 2018/981 (2018/5 kreditu gehigarria) dekretuen jakinarazpena.**
- 13. Dar cuenta de los siguientes créditos: 2018/564 (crédito incorporado 2018/2), 2018/876 (crédito incorporado 2018/3), 2018/877 (crédito adicional 2018/4) y 2018/981 (crédito adicional 2018/5).**

### OGASUN BATZORDEAK 2018KO MAIATZAREN 23AN EMANDAKO IRIZPENA.

Kontuhartzaileak 2018ko aurrekontuari dagozkion 2., 3., 4. eta 5. kreditu aldaketarako espedienteen kontu eman du.





TOLOSAKO  
UDALA

**Bigarren** espedientea kreditu txertaketa modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak hauexek dira:

#### GASTUAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
6	INBERTSIO ERREALAK	13.066,25
<b>TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA</b>		<b>13.066,25</b>

#### FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	13.066,25
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>13.066,25</b>

**Hirugarren** espedientea kreditu txertaketa modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak hauexek dira:

#### GASTUAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	351.454,84
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	321.663,22
6	INBERTSIO ERREALAK	1.643.141,55
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	300.000,00
<b>TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA</b>		<b>2.616.259,61</b>

#### FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	2.616.259,61
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>2.616.259,61</b>



TOLOSAKO  
UDALA

**Laugarren** espedientea kreditu gehigarriaren modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak hauexek dira:

### KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	42.903,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	67.030,44
6	INBERTSIO ERREALAK	189.261,20
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>299.194,64</b>

### FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	299.194,64
<b>GUZTIRA</b>		<b>299.194,64</b>

**Bosgarren** espedientea kreditu gehigarriaren modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak hauexek dira:

### KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	33.000,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	28.500,00
6	INBERTSIO ERREALAK	65.000,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>126.500,00</b>



## FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	126.500,00
GUZTIRA		126.500,00

Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.

**14. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko apirilaren 1etik 30ra (2018/651- 2018/868).**

**14. Dar cuenta de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 30 de abril de 2018 (2018/651-2018/868).**

Alkatetzak 2018ko apirilaren 1etik 30era bitartean (2018/651-2018/868) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**15. EHBILDU taldeak aurkezturiko mozioa, ekainaren 10eko giza katearen ingurukoa.**

**15. Moción presentada por el grupo municipal EHBILDU sobre la iniciativa de Gure Esku Dago del 10 de junio.**

Parte-hartzeak:

... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Erabakitzeko eskubidea, bere horretan, ez da existitzen, ez marko politikoan ezta ere zuzenbide konstituzionalean. Guk autogobernuaren ponentzian behin eta berriz eskatu dugu Gernikako Estatutuaren eguneratze eta hobekuntza eta horren proposamen artikulatua, Eusko Jaurlaritzari aurkeztea tokatzen zaio, eztabaida produktibo bat lortzeko. Horregatik mozioaren aurka bozkatuko dugu.”*

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Barkatu, gure ustez erabakitzeko eskubidea existitzen da pertsonak garen neurrian, hau da robotak ez garenez sentimenduak adierazteko eskubidea daukagun neurrian erabakitzen dugu. Eta, gainera, eskubide hori intrintsekoa da gizakian. Herri bezala, gure eskubidea da herri moduan izan nahi duguna adierazi eta egikaritzea. Gizarte bezala eskubide demokratikoa da herritarrek beraien buruaz erabaki, beraien egunerokoa eraiki eta beraien etorkizuna*



*lantzea. Beraz, eskubidean hegoak egikaritze batez ari gara hemen hitz egiten. Herri moduan gure herriak sujeta politiko historiko kultural moduan duen eskubide bat lantzea eta praktikan jartzeaz ari gara hizketan eta herritar gisa, pertsona gisa, dugun eskubide demokratiko bat gauzatzeaz ari gara. Eta hori gutxi ez, eta parean hori ukatzen digun izaera erabat antidemokratikoa, atzerakoia, murriztatzailea duen estatu baten aurrean gaude. Estatu diogu Gobernua aldatuta eta Gobernuan egon daitekeen alderdi aldatuta ere egoerak berdin jarraitzen duelako eta euskaldunok eskubide, euskaldunok herritar gisan eta herritarren gisan ditugun eskubideak errespetatzen ez dizkigutelako, izan batzuk edo besteak. Horregatik adibideak gaur egun argiak dira, 155 daukagu martxa oraindik Katalunian. Eginbeharrekoak eginda, hauteskunde berriak deituta, Puigdemont zen pertsona bat presidentea jarrita ere oraindik 155ak martxan darrai. Lege eta eskubideak urratzen dizkigute eta gure autogobernu famosoak, behin eta berriz, urratzen dute etxebizitza legea, fracking, mila lege daude konstituzionalean ebatzita eta inpugnatuta eta gure herritarren eta gure etorkizuna eraikitzeke, gure eskubideak bermatzeko lege asko daude murriztuta Estatu honen ondorioz edo Estatu honen jarrerengatik. Normalizazio politikoan mila dira adibideak ukatzen dizkigutenak gure eskubideak, gure herritarren eskubideak eta hor mahai gainean jarri nahi nituzke presoek dituzten eskubide urraketak nola pairatzen dituzten egunetik egunera, presoan zein senideak. Aniztasunaren ukazioa espainiar estatua, aniztasunaren ukazio garbia da Espainiar estatua. Estatu zentralista bat da, txuri-beltza, berak bakarrik nola eraiki behar duen bere etorkizuna guri inposatzen diguna. Eta korrupzio endemiko bat duena. Eta Estatua diot eta ez, PP alderdia, Estatu diot, hor daudelako beste batzuk ereak Andaluzia, e.a. Beraz, argi daukagu estatu honekin Espainiar estatuarekin ez daukagula etorkizunik gizarte moduan. Izugarritzko lastrea da, baina argi dugu, gure eskubidea dela herritar gisan gure etorkizuna guk, geuk eraikitzea. Horregatik gaur mozio aurkezten dugu, eskutik aurkezten dugu, gogorra egiten zaigu, aldi berean, aurrekoa astean EAJk ikustea nola estatu honen ordezkari den PP gobernuak korrupzio, lapur eta postfrankista honekin oraindik aurrekontuak adosteko gaitasuna izan duen bere hitza jaten. 155-a jomuga jarritz eta azkenean 155-a martxan darrai eta aurrekontuak babestu dituzue. Gogorra egin zait eta egin zaigu. Baina aldi berean, argi dugu eta Gure Esku horretan eredu garria da, desberdintasunak desberdintasun herri bezala erantzuteko beharra eta gaitasuna erakutsi behar dugula ordezkariok eta herritarrek hori eskatzen dutela. Horregatik, gaur, hemen, pozten gara elkarrekin hau aurrera ateratzea. Pena aho batez ez atera izana, eskubideetaz ari garelako hizketan, eta eskubide gauzatzeko horretan denok egon beharko genuelako. Gero gauzatu den eta bakoitzak erabakiko zer nolako etorkizuna eraiki nahi duen, Espainia ilun honetan edota bestelako herri bat eraikitzen. Baina, pena izan arren iruditzen zaigu gaur hemen gauden guztion artean, bat izan ezik, alde bozkatzeko inportantea dela. Horregatik mozio aurkezten dugu EAJrekin batera, EHBilduk edo elkarrekin aurrera aterako den esperantzaz. Eta nola ez gogoratu eta animatu herritarrei hila 10ean parte hartzeko, izena emateko eta sinisteko gure etorkizuna guk eraikiko dugula inork ez digula eraikiko. “*

*... Alkatea: “Ni ez naiz beste kontsiderazio batzuetan sartuko eta mugatuko naiz mozioaren testura. Hemen gogorra hitzaz adostea mozio bat eta gero publikoki esatea gogorra egiten zaigu, afirmazio rotundoarekin. Herri honek egoera gogorrazkoak izan ditu Ibai eta luze emango luke. Ez dut uste kontua denik Legebiltzarreko ponentziaren inguruko debateak honantz trasladatzea. Uste dut gure egitekoa dela hemen mozioa eta horretarako ekarri dugu. Gainera, esaten*



TOLOSAKO  
UDALA

*genuen ahal bada era positiboan, hor baita kontua. Guk esan nahi genuena da, erabakitzeke eskubidearen aldarria herri honen erabakitzeke eskubidearen aldarria ez dela gaurkoa. Erabakiaren horren inguruan herri honen egin du bere ibilbidea, baina bada alderaketa azken urteotan gertatzen ari dela, eta da, gure Esku dago ekimena. Alderaketa hori azpimarratu nahi nuke herri ekimen batetik datorrela eta horrek garrantzia handia dauka. Herri ekimen bat da eta herri ekimen horri lagundu nahi baldin badiogu uste dut herri ordezkariak ere hori laguntzea eta babestea oso inportantea dela. Eta horregatik batetik edukiarekin mozioaren edukiarekin bat egiten dugulako eta lehen esan dudan bezala herri ekimen horiek babestea inportantea delako bat egingo dugu mozioarekin.”*

-----

Gai zerrendan EHBildu taldeak aurkezturiko mozioa, ekainaren 10eko giza katearen ingurukoa azaltzen bada ere, transakzionatua da.

Ibai Iriarte San Vicente EHBildu alderdiko zinegotziak adierazi du EAJ eta EHBildu alderdiek adostu dutela ondorengo mozioa.

Mozioak honela dio:

*“Euskalerritarrok gure etorkizuna erabaki ahal izateko egungo marko juridiko politikoak ezartzen dituen oztopoak nahikoa ez eta egungo markoa are eta murriztagoa nahi dutenek gure erakundeak jo puntuan jarri dituzte, herritar denon oinarrizko eskubideak urratzeko inolako erreparorik gabe. Katalunian aplikatu du Espainiako estatuak aurrenekoz 155. artikulua, baina Hego Euskal Herrian ere aplika dezake.*

*Argi dugu, epe luzerako elkarbitzita bermatzeko ezinbesteko baldintza dela erabakitzeke eskubidea gauzatzea. Elkarrekin etorkizun demokratiko, justu eta duina eraikitzeke bidean, inoiz baino argiago dagokigu askatasunaren eta eskubide zibil eta politikoen defentsan elkarri eskua ematea. Hain justu, ekainaren 10eko giza kateak balio behar du adierazteke herri hau ez dagoela prest atzera egiteko bere asma eta helburuetan, aurrera egiteko determinazioa duela. Halaber, etorkizuna elkarrekin eraikitzeke borondatea erakutsi behar du mobilizazioak, horrek posible egingo duelako mugak eta oztopoak gainditzea eta urrutira ailegatzea.*

*Erabakitzeke eskubidea badugu eta arrazoiak ere soberan ditugu. Gauzatzeko ibilbidea elkarrekin adostea dagokigu orain. Eta hori guztion ardura da. Herri bezala jarduteko garaia da. Elkarrekin. Ezin baitugu aukera historiko hau galdu. Ezin gara geldirik geratu.*

*Hori guztia dela eta Tolosako udalak dei egiten die tolosarrei Ekainaren 10ean Gure Esku Daga ekimenak antolatutako giza katean parte hartzera.*



TOLOSAKO  
UDALA

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin eta Pedro Manuel Etxabe Zabala eta

**Aurkako botoa:** Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu du** ekainaren 10eko giza katearen inguruko mozioa.

#### 16. Galderak eta eskaerak.

#### 16. Ruegos y preguntas.

... Kristina Pelaez Errazkin (EHBildu): *Klinikako langileen inguruan hitz egin nahi nuke. Lehenengo eta behin, zoriondu nahi dut Klinikako langileek eman duten borroka. Azken finean, ulertzen dugulako era gogorak direla baina fruituak ere ematen dituztela. Oraindik lotzeko daude gauza asko, baina fruituak emateko aukera asko dituela. Bestalde, gogoratzea ere bai klinikako langile baldintzak hobetzea zutela Tolosaldeako osasungintzako egoera konpontzen, bere kalitatea ez dela oraindik beste Eskualdeetan ematen den kalitate berdina eta gure aldetik jarraituko dugula kudeaketa hori publikoa izan arte. Honen harira gogoratu nahi nuen apirilaren 24n, hemen langileak EHBilduren bidez mozio bat sartu zuten. Hemen onartu zena izan zen beste mozio bat, EAJk aurkeztutako beste mozio alternatibo bat. Badakigu beste udal batzuetan langileak aurkeztutako mozio horiek onartutakoan Osasun Sailari jakinarazi ziotela langileak zeuzkaten eskaerak eta erantzuna jaso dutela. Udal horietan erantzuna jaso dutela. Jakin nahi nuen Tolosako udalak erantzuna jaso duenik eta jaso baldin badu zer nolako erantzuna izan den.” Baita ere galdetu du bideratu al zen Osasun sailera.*

... Alkateak “Guk aurkeztutako mozioaren erantzuna ez dugu jaso.”

Udal idazkariak adierazi du normalean mozioak bideratu egiten direla.

... Ibai Iriarte San Vicente, EHBildu): *Erretengibel, Alde Zaharreko garapena eta sustapen arkitektonikoa bermatzeko eta indartzeko sozietatearen inguruan. Azkeneko legealdian ez da askotan bildu, azkenengoa iaz bildu zen. Bertan, diru-laguntzak emateko ordenantza edo araudia aldatzeko proposamen bat mahai gainean jarri zen, eztabaidagai zegoen. 2017ko, lehenengo 6 hilabetez ari naiz hitz egiten. Denbora pasa da, Alde Zaharra herri honen bihotza dela inork ez du auzitan jartzen, komertzio kopurua, bizitza, daukan garapena maitatu eta indartu egin behar da. Alde Zaharrak dituzten arazo eta problematika guzti horiek tentuz landu behar*



*dira, hezetasun arazoak, etxebizitzaren ITE faltak, zahartzaroa, egoera, bertako pertsonen egoera sozioekonomikoa eta baita osasun eta adinen arazoak, ea. Erretengibelek horretan lagundu izan du eta laguntzen du, badakitelako martxan jarraitua dagoela, baina hor bazegoen diru-laguntza lerroa zeinek berpentsatzea ikusten zen ez zelako erabat xahutzen e.a., denbora dexente jada pasa da eta zertan dagoen ez dakigu, guri behintzat ez zaigu komunikatu. Ez dakit kontu honen berri eman den. Ulertzen dut eman behar litzatekeela. Berdin zaigu eztabaida hori hirigintzatik eman behar bada ere,. Ulertzen dugu Alde Zaharrari atentzio gehiago jarri behar zaiola eta zentzu horretan, eztabaida pendiente horri eutsi behar zaiola. Beste batzuei eutsi behar zaion bezala. Horren inguruan informazioa nahi genuke iraganeko kontua denez zertan datzan. “*

... Alkatea: *“Ekainaren hasieran zegoen asmoa Erretengibelen bilera bat egiteko. Gainera Erretengibel ere sozietate publikoa da, mahai gainean jartzeko. Badakizue sozietate publikoen guztien gainean ari garela azterketa sakon bat egiten udaletxean. Modu guztietara jasota dago eta ondo iruditzen bazaizue Teknikariarekin komentuko dut.”*

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Nahi duguna da eztabaida hau jada urtebete hasi zen, mahai gainean jarri zela, gainera teknikariak jarri zuen mahaigainean eta zuen ardura da erantzunak lehenago aurkeztea.”*

... Alkatea: *“Guk badakigu gure ardura zein den eta aritu gara horretaz, hala re esaten dizut hitz egingo dugula. Galdera erreguen tartea da. Galdera erregua egin duzu, erantzun dizut. Egongo gara teknikariarekin eta komunikatuko dizugu. Ez da erantzuna bertan eman behar, galdera egiten duzue, kontsultatu eta komunikatuko dizuegu.”*

... Iñaki Irazabalbeita Fernandez (EHBildu) : *Gaia bat daukat azken aldi honetan nahiko presentzia izan du mahai honetan. Zuk ere aitatu duzu, Olatz, Autobus urbanoaren zerbitzua emateko konpainiaren aldaketa. Badakigu ekainaren 11n sinatuko dela, okerrik ezean, kontratu berria Kuadrabidearekin eta zerbitzua emateko asmoa ekainaren bukaerarako dela. Espero dezagun zerbitzu ematen hastea eta tartean egon litezkeen arazoak bideratzea Tolosako herritarren bere hiribus zerbitzua %100ean erabili izan dezaten. Prozesu guzti honetan guri beste kezka sortu zaigu eta aurrekoan langileen ordezkariarekin izan genuen bileran mahai gainean jarri genuen. Hain zuzen ere, beharrezkoa ikusten dugu hiribusaren kudeaketaren inguruan gogoeta bat egitea. Izan ere, badakigu oraingo kontratua epealdi baterako dela, urte t' erdi bueltan. Badakigu ere beste kontratu datako balitz Europa mailan publikatu behar dela eta horrek badauzkala zailtasun batzuk eta guri iruditzen zaigu badela garaia udal honen pentsatzeko ea zerbitzu hori zuzenean, udal langileen bidez, kudeatzea ez ote izan litekeen egokiagoa. Horregatik, eskertuko genuke udal gobernuak egingo balu azterketaren bat aukera horren inguruan, zein izango litzatekeen aukerarik egokiena udal honentzako, bai ikuspegi ekonomikotik eta baita ere ikuspegi sozialetik Tolosako Hiri busa kudeatzeko eta azterketa hori egitea bere baliabidez eta bere baliabidez posible ez bada teknikariak lan karga handia dutelako kanpoko enpresaren laguntzaren bitartez.”*

... Alkatea: *“Gure asmoa izango litzateke Sanjoanetarako urbanoa martxan egotea.*




TOLOSAKO  
UDALA

*Gutxieneko zerbitzuak ez dakit izango genituzkeen festetarako eta horrek arduratzen gaitu. Azterketaren inguruan Iñaki aipatu duzunarekin hitz egingo dugu barne baliabideekin ea posible den azterketara hori egitea.”*

Besterik gabe, 21:00etan, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, guztia ziurtatzen dut.

ALKATEA



IDAZKARIA